

**489/23 EBAZPENA, APIRILAREN 11KOA, DONOSTIALDEKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ZUZENDARI GERENTEARENA, ASISTENTZIA KLINIKORAKO KONTSEILUKO KIDEAK IZENDATZEKO**

**IKUSITA** 100/18 DEKRETUA, uztailaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren erakunde sanitario integratuei buruzkoa.

Ebazpen hau honako aurrekari hauetan oinarritzen da:

**AURREKARIAK**

**Lehenengoa:** Donostialdeko ESIko zuzendari gerentearen ekainaren 11ko 509/2019 Ebazpenaren bidez, Donostialdeko ESIko Asistentzia Klinikorako Kontseiluaren osaera ezarri zen.

**Bigarrena:** Gaur egun, erakunde horren zuzendaritza-egituraren zati handi batean izandako antolakuntzako eta lanpostu-erreleboetako aldaketen ondorioz, eta eratu zenetik igarotako denboraren ondorioz, Donostialdeko ESIko Asistentzia Klinikorako Kontseilua osatzen duten pertsonak berri behar dira.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehenengoa:** 100/18 Dekretuaren III. kapituluak (17. artikulutik 28.era), erakunde sanitario integratuen partaidetza-organoak arautzen ditu, eta, horien artean dago, besteak beste, Asistentzia Klinikorako Kontseilua. Medikuntzako Zuzendaritza izango da kontseiluko burua, 19.1 artikulua araberak, eta honako eginkizun hauek dagozkie, 18. artikulua araberak:

*«Asistentzia Klinikorako Kontseiluaren eginkizunak, nahitaez, ESIaren Plan Estrategikoen aurreikuspenen barruan gauzatuko dira. Hona hemen eginkizun horiek:*

*a) Asistentziaren kalitatea bermatzeko politikak egitea eta proposatzea, baita erakundearen antolaketaren eta funtzionamendua hobetzeari buruzkoak ere.*

*b) Arreta integratuaren garapen eraginkorrerako proposamenak egitea, bai asistentziaren esparruan, bai esparru komunitarioan eta soziosanitarioan.*

*c) Asistentzia-, diagnosi- eta terapeutika-estrategia berriak balioestea.*

d) *Ikerketa, irakaskuntza eta prestakuntzaren alorretako jardun-ildoak proposatzea.*

e) *Asistentzia Klinikorako Kontseiluaren ordezkari gisa Zuzendaritza Kontseiluan eta Kontseilu Sozialean parte hartuko duten kideak proposatzea».*

**Bigarrena:** 19.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Asistentzia Klinikorako Kontseilua hauek osatuko dute, gutxienez:

«1.- *Asistentzia Klinikorako Kontseilua hauek osatuko dute, gutxienez:*

a) *Medikuntzako Zuzendaritzak, zeina Kontseiluko buru izango den.*

b) *Kide hauek:*

1) *Arreta Integratuaren Zuzendaritzak.*

2) *Erizaintzako Zuzendaritzak, eta, hala badagokio, Arreta Komunitarioko arloko buruak.*

3) *Zuzendaritza Kontseiluak proposatutako lehen mailako arretako unitateko bi arduradunek.*

4) *Zuzendaritza Kontseiluak proposatzen dituen ospitaleko bi arduradun klinikok.*

5) *Zuzendaritza Kontseiluak proposatzen dituen erizaintzako bi arduradunek.*

6) *Langile fakultatiboen eta erizaintzako langileen ordezkari diren ESI bakoitzeko lau kidek, lehen mailako arretako eta ospitale-arretako ordezkari bermatzeko».*

Gerentziako Zuzendaritza honek beharrezkotzat jotzen du maila hierarkiko eta jardun-eremu desberdinetako profesionalekin **zabaltzea**, zerbitzu-erakunde horren ezaugarriak kontuan hartuta.

**Hirugarrena:** Zerbitzu-erakunde bakoitzeko Gerentziako Zuzendaritzari dagokio Asistentzia Klinikorako Kontseilua **osatuko duten pertsonak izendatzea**, bi urteko aldi baterako, 19.4 artikuluan aurreikusten den bezala, Zuzendaritza Kontseiluak medikuen eta erizainen ordezkari hautatu ondoren. Prozesu horiek 2023ko martxoaren \_\_\_\_ (e)tik 7ra bitartean izan dira.

**Laugarrena:** Asistentzia Klinikorako Kontseiluaren osieran **emakumeen eta gizonen ordezkari orekatua** bilatuko da. Ordezkari orekatua dela esaten da sexu bakoitzak, gutxienez, % 40ko ordezkari baldin badu.

**Bosgarrena:** Asistentzia Klinikorako Kontseiluaren **funtzionamendu-araubidea** Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean kide anitzeko organoetarako aurreikusitakoari lotuko zaio.



Asistentzia Klinikorako Kontseiluak Gerentziako Zuzendaritzari proposatuko dio **lan-batzordeak edo talde bereziak** sortzea. Talde horietan kontseilukoak ez diren pertsonak har dezakete parte.

Azaldutakoaren arabera, eta 100/18 Dekretuaren 19.4 artikulua Gerentziako Zuzendaritza honi emandako eskumenarekin bat etorriz, honako hau

### **EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa:** Donostialdea ESIaren Asistentzia Klinikorako Kontseiluaren osaera ezartzea. Honako hauek osatuko dute:

A) **Kontseiluko burua: zuzendari medikoa:** Sara ARÉVALO LOBERA

B) **Kideak:**

1) **Arreta Integratuaren zuzendaria:** Eider UZKUDUN LIZAU

2) **Erizaintzako zuzendaria:** Yeshika MERINO PÉREZ

3) **Lehen mailako arretako unitateetako bi arduradun:**

Miren Elisabet BARANDIARÁN BENGOETXEA  
María BARTOLOMÉ DOMINGUEZ

4) **Ospitaleko bi arduradun kliniko:**

Inmaculada RUIZ MONTESINOS  
Xabier ZUBELDIA CAMINOS

5) **Erizaintzako hiru arduradun:**

Silvia SÁNCHEZ MARTICORENA  
Daniela MORENO GALDÓS  
Izaskun FERRER IGLESIAS

6) **Langile fakultatiboen eta erizaintzako langileen ordezkari diren lau kide, lehen mailako arretako eta ospitale-arretako ordezkariak bermatzeko.**

Jose Miguel RENGEL SALA  
Iker MARTÍN HERNÁNDEZ



**Osakidetza**

osakideta, irabazteko bide gerentzia  
osakideta, irabazteko bide gerentzia

Félix ZUBIA OLASCOAGA  
Jazmina NUÑEZ BARRIO

**7) Zuzendaritza Kontseiluak hautatutako kideak:**

Rosa AZKUE MARTIJA  
Xabi SANZ CASCANTE  
Xabier ALTUNA MARIEZKURRENA  
Arantza MENDAÑA IRIBERRI  
Beatriz ARRILLAGA DOMINGUEZ  
Irene OZCOIDI ERRO

**C) Idazkaria:** Ana MARTÍNEZ ALONSO

**Bigarrena:** **Jakinaraz bekie** interesdunei, eta argitara bedi ebazpen hau zerbitzu-erakunde honen intranetean, pertsona guztiek horren berri izan dezaten.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioko Osakidetzaren zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi/argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/15 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Donostia, 2023ko apirilak 11

ZUZENDARI GERENTEA  
Agustín AGIRRE ARANBURU

 **Osakidetza**

DONOSTIALDEA ESI  
OSI DONOSTIALDEA

GERENTZIAKO ZUZENDARITZA  
DIRECCIÓN GERENCIA